

EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA

DBHko 2.a

2011-12 ikasturtea

**Jarduera
protokoloa**

AURKIBIDEA

- A. 2011-12 ikasturteko berritasunak**
- B. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzea**
- C. Probak entregatzea eta zaintzea**
- D. Ikasleak salbuesteko irizpideak**
- E. Curriculum Egokituko Programa (CEP) egiten duten ikasleak**
- F. Probak betetzea**
- G. Aplikazio fasea prestatzea**
- H. Aplikazioa**
- I. Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak**
- J. Ingeles probarako berariazko jarraibideak**
- K. Probak aplikatzeko egutegia**
- L. Proben zuzenketa**
- M. Datuak sartzea**
- N. Txostenak eskuratzea**
- O. Ikasleek egindako probak gordetzea**
- P. Esker ematea**
 - 1. eranskina: Salbuetsitakoen erregistroa**
 - 2. eranskina: Egutegia**

Dokumentu honetan jarraibideak ezarri dira, probak Nafarroako ikastetxe guztietan kontrolpean eta modu berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikazio, zuzentze, grabatze eta informatze lanean zuzenki inplikaturik dauden zuzendaritzako kide eta irakasleek behar besteko aurrerapenez ezagutu beharko dituzte jarraibide hauek, eta praktikara eraman.

A. Berritasunak

Ikastetxeek ekarritakoaren eta Ebaluazio Atalaren balorazioen arabera, 2011-12 ikasturtean azpimarratzeko modukoak diren berritasunak ondoko hauek dira:

- * Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzea
- * Ikasleak salbuesteko irizpideak (edukia garatu da).
- * Ezarpen irizpidea: aplikatzailea saio osoan ikasleekin egonen da eta ez du ikasgela utziko eta ez du ordezkorik izanen.

B. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* aplikatzea

Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturalari dagokionez, aurreko ikasturteetan ez bezala, Hezkuntza Departamentua online aplikatzeko beharrezkoak diren tresnak garatzen ari da, ikasleek formularioa digitalki bete dezaten. Otsailean eta martxoan beharrezko jarraibideak bidaliko dira ikastetxeetara eta haiek aplikatuko dira.

Nolanahi ere, ikasleen datuak isilpekoak izanen dira eta ausaz ateratako erabiltzaile-kodeak erabiliz beteko dituzte formularioak ikasleek. Ikastetxe bakoitzak indize sozioekonomiko eta kultural orokor bakarra izanen du eta baliagarria gertatuko zaio ikastetxeko ikasle guztiek lortutako emaitzak interpretatu eta baloratzeko.

C. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Joan den urteko prozedurari jarraituko diogu:

- a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZtara atxikiriko ikastetxeek probak haiei dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2012ko apirilaren 24, 25 eta 26an**.
- b) ILZ horietara atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahiko balitu, **posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Ebaluazio Atalari, martxoaren 20a baino lehen.** (evaeduc@navarra.es).
- c) **Iruñeko ILZri** atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuan jasoko dituzte, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan (tarteko solairua), **2012ko apirilaren 24, 25 eta 26an**, 08:30etik 14:30era.

2. Behin ikastetxean, koadernoak giltzapean gordeko dira, sekretupekoak direla bermatuz.

3. Zuzendariek aplikatzaileei proba bakoitzean beharko diren koadernoen kopuru zehatza emanen diete, **gehienez ere proba hasi baino ordubete lehenago**.

Koadernoak paketatuta egonen dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.

4. Aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, maiatzaren 21a arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

D. Ikasleak salbuesteko irizpideak

DBHko 2. kurtsoan dauden ikasle guztiek egin beharko dituzte proba hauek. Salbuespena izanen dira ondoko irizpideren batengatik proba egin ezin dezaketenak:

- a) Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikasturte bat baino gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ez ezagutzea.
- b) Mugitzeko edo zentzumenezko ezgaitasuna, proba egitea galarazten duena (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria...).
- c) Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) errolaturiko urritasun psikiko edo intelektuala, irakasgai gehienetan bi kurtso baino gehiagoko curriculum desfasea eta/edo proba egiteko autonomia gabezia. Errolatua egotea ez da aski arrazoi salbuespena izateko. Adibidez, arreta gabeziako nahastea hiperaktibotasunarekin (TDA-H) errolaturiko ikasle askok egin dezakete proba eta ez dira salbuetsi moduan agertuko. Horretaz gainera, curriculum desfasea kontuan hartuko da, baita ikasleak proba egiteko nahiko autonomia duen ere, harengandik espero den errendimendua apala bada ere.

Ikasleak aipatutako irizpideetako baten bat betetzen ez badu, Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan halakotzat agertuko da. Hala bada, **haren emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan izanen**. Hori hala izanik ere, salbuetsi moduan agertzen diren ikasle askok proba egin dezakete, haien emaitzak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena ere lortzerik izanen da.

Ikastetxeak (zuzendaria, orientatzailea, tutorea) proba egiteko ezgaitzen ez dituzten hezkuntza premiak dituzten ikasleendako egokitzapenak eta laguntzak aurrez ikusi eta eskura jarriko ditu. Egokitzapenak ondokoak izan daitezke:

- a) Letra tamaina handitzea.
- b) Proba egiteko denbora gehiago ematea. Oro har emandako denbora bukaturik, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten segi dezakete, bai jarraian, bai beste une batean, tutorearen laguntzarekin eta curriculum egokitzapenaren arabera. Hala gertatzen denean, ordubeteko epean egin duena EDUCA aplikazioan grabatuko da eta egoera berezian egindakoa, berriz, tutoreak kontuan hartu eta, hala behar bada, ikaslearen txostenean jarriko du.

Irizpide hauek aplikatzen badira, bermatuko da proba estandarizatu hauetan beren seme-alaben emaitzak ezagutzeko familien eskubidea eta, orobat, ezaugarri pertsonalak kontuan hartzea eta emaitzak modu kontestualizatu batean baloratzea.

Ikastetxeek aurretik beteko dute **Salbuetsitakoan erregistroa** (1. eranskina) eta behar den garaian informazioa emanen diete proben aplikatzaileei. Erregistroa ikastetxean gordeko da (ez da Ikuskapen Zerbitzura igorri behar).

E. Curriculum Egokituko Programa (CEP) egiten duten ikasleak

CEPeko ikasleak **salbuetsi modura** agertuko dira Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan, eta haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan hartuko.

Hori hala izanik ere, ikasle horiek **probak egin beharko dituzte (ingeles gaitasunekoan izan ezik)**, ez bada oro har ezarritako salbuespen irizpideak ezarritako ezinezkoa dutela.

Barne CEPeko ikasleei dagokienez, jardunbide orokorra erabiliko da: ikasleen erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena aterako da.

Kanpo CEPeko ikasleei dagokienez, ikasleek probak ohiko ikasgeletan egiten dituzte, koadernoak eskuz zuzenduko dira, datuak Educa aplikazioan sartuko dira eta txostenak eskuz idatziko dira. Horretarako, ikasle hauek hartzen dituzten ikastetxeek materiala Hezkuntza Departamentuko webgunetik hartuko dute eta edozein laguntza edo argibidetarako Ebaluazio Atalarekin jarriko dira harremanetan.

F. Probak betetzea

- Probak ahal dela **boligrafoz** beteko dira.
- **Ikasleek kalkulagailua erabiltzen ahalko dute** probetan.
- Zirriborro papera:

- Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabili ahal izanen dituzte eragiketarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasa beharko dituzte, galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
- Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabili ahal izanen dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (Listening edo entzumena).
- Ez da zirriborroaren papera jasoko.

G. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendariak Protokolo hau aplikatzaileen esku utziko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da protokoloa eta ebaluazio prozesu osoaren plangintza taldean aztertzea.
- Ingeles proba egin behar denean bereziki hartu behar da kontuan audio-erreproduzitailea erabili behar dela eta horretarako berariazko jarraibideak daudela.
- Tutoreek ikasleentzat lana prestatuko dute, proba bukatu ahala lanean jarrai dezaten, ikaskideak molestatu gabe.
- Ikastetxeek egokitzat dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, normala edo ohikoa den lan giroa sortzeko.

H. Aplikazioa

1. Probak ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte, baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek.
2. Aplikatzailea saio osoan ikasleekin egonen da eta ez du ikasgela utziko eta ez du ordezkorik izanen.

3. Aplikazioan zehar, aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideak fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben edukiari, testuei edo galderei buruzko argibiderik, ñabardurarik eta interpretaziorik egingen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea eta ikasleei emanen dien laguntza edo esanen diena ondoko mezu hauen antzekoa izanen da: *adi irakurri; segi lanean; galdera ez baduzu ulertu segi lanean eta saiatu geroago; baduzu denbora errepasatzeko...*

Bere lana egoki betetzeko, aplikatzailea ikasgelan gertatzen denaz, ikasleez eta probaren garapenez arduratuko da, eta ikasleek arretaz lan egin dezaten eta eman zaien denbora ahalik eta gehien aprobeatza dezaten ahaleginduko da.

4. Aplikatzaileak ikasleei esanen die proba hau egitea oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak ari direla proba egiten, ahal bezain ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak ekainean emanen dizkiela emaitzak gurasoei, etab. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurrez ikusitako lan planaren arabera egin daiteke.
5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar direla proba bukatu arte. Lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituzte, ikaskideen lana eten gabe. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda pasatuko du, bertaratu gabeak azpimarratuko ditu eta salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu "Salbuetsia" idatziko du koadernoan, proba bukatzean.
7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori horrela dela bermatuko du, saio guztian zehar.
8. Behin dena ordenan dagoela, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatuko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita ere itxiak, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die galdera irekietan galderaren ondoren gune libre eta puntudunean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematikako gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dutela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.
9. Ikasleek izan ditzaketen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan, eta zerbait ulertzen ez badute, eskatuko die berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko. Probaren edozein unetan ikasleek berrikusi ahal izanen dituzte aurreko galderak.
10. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko denbora 60 minutu da. Hori denbora erreala edo baliagarria da: "Une honetatik aurrera hasiko gara kontatzen probako 60 minutuak."
11. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendioa egingen die.
12. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du.
13. Denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie, probak zuzentzeko eta bertaratu gabeko ikaslerik izatekotan, haien errekupeazioa egiteko.
14. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazioaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Ikuskatzailea aplikazio saioan egonen da eta protokolo hau betetzen dela kontrolatu eta frogatuko du.

I. Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak

Ebaluazio hau DBHko 2. kurtsoa eta/edo CEPEko ikasle guztiak egin behar dute, eta beraz, proben egunean bertaratu ez direnak lehenbailehen egin beharko dute, ikastetxe bakoitzak aurrez ikusitako berreskuratze planaren arabera.


Epe horretarako aukera ematen badute, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala behar denean, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz, hala nola, erantzun zuzenak, errendimendu mailak ezartzeko tarteak, etab.

J. Ingeles gaitasuna neurtzeko probaren berariazko jarraibideak (English Literacy)

Oro har ezarritako jarraibideez gainera, ondoko hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Aplikatzaileak, astebete lehenago, egiaztatuko du audio-erreproduzitzailerak eta ingeles gaitasuna neurtzeko probako CD-a (entzumena) egoki dabilzala eta ikasgela osoan ongi entzuten dela.
2. Aplikatzaileak ikastaldeko kideek ikasteko erabiltzen duten hizkuntzan emanen dituzten azalpenak: G/A ereduak ikasleei gaztelaniaz eta D ereduak euskaraz.
3. Koadernoko azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko da:
 - a) LISTENING (entzumena): zenbait aldiz entzuten da ingelesezko entzunaldi bat, eta jarraian entzundakoaren gaineko galderari erantzuten zaie.
 - b) READING (irakurmena): testuak irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderari erantzuten diete.
 - c) WRITING (idazmena) idazteko lanak egingen dira koadernoaren atal honetako jarraibideen arabera.
4. Jarraian, azalduko du LISTENING (entzumena) atala horrela egingen dela:
 - a) Koadernoko lehen 7 galderak 2 minutuz irakurriko dituzte, aldez aurretik jakin dezaten eskatzen dena zer den.
 - b) Jarraian, bitan (2) entzuten dute ingelesezko entzungai bat, minutu bateko geldialdi batekin.
 - c) Tarteko etenean galderak erantzuten has daitezke, eta horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.
 - d) Entzunaldietan oharrak hartu ahal izanen dituzte, zirriborro orrian.
 - e) Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere eritmorik.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzumena) jarduerak eta denborak:



5. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, hiru atalen gainean, egin behar dutenaren gainean... Zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.

6. Zalantzak argiturik, arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako denbora, kontuan izanik proba egiteko 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela:

Esanen die lehen 7 galderak 2 minutuan irakurri behar dituztela (ordulariarekin kontrolatuko ditu) eta denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko du.

7. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketarekin hasteko (WRITING).

K. Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek dute 60 minutuko iraupen erreala, eta ondoko egutegiaren arabera eginen dira:

Astelehena Maiatzaren 7a	Asteartea Maiatzaren 8a	Asteazkena Maiatzaren 9a	Osteguna Maiatzaren 10a	Ostirala Maiatzaren 11
Matematikako gaitasuna	Zientzietako gaitasuna	Gaitasuna euskaran (B/D ereduak)		
<i>Atsedena / Jolas-ordua</i>	<i>Atsedena / Jolas-ordua</i>	<i>Atsedena / Jolas-ordua</i>		
Hizkuntza gaitasuna Gaztelaniaz	Gaitasuna Ingelesean			

L. Proben zuzenketa

1. Irakasle zuzentzaileak ondoko hauek dira:

Proba	Zuzentzailea
Hizkuntza gaitasuna	Gaztelania edo Euskara irakasleak
Matematikako gaitasuna	Matematika irakasleak
Zientzietako gaitasuna	Zientzien arloko irakasleak
Gaitasuna Ingelesean	Ingeles irakasleak

2. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira **galdera irekiak** zuzentzeko irizpideak. Koaderno hauek ikastetxeko zuzendariaren eskura izanen dira probaren egunean, pasahitzarekin, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalaren webgunean:

<http://www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Evaluacion/Evaluaciones+de+Navarra/Educacion+Secundaria>

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...) ikaslearen koadernoan jarriko du.

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta puntuazioa automatikoki emanen zaie.

3. **Epeak**. Probak aplikatu ondoren, zuzendu eginen dira. Gomendagarria da aplikazioa egin ondorengo astean egitea; epemuga maiatzaren 18a, ostirala izanen litzateke.

M. Datuak sartzea

1. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, (A, B, C, D) galdera itxiei emandako erantzunak eta (0, 1, 2...) galdera irekiei emandako puntuazioak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat jarriko da, Educac datuak sartzeko jarraibideekin. Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio Atalean argituko dira, mezuak (evaleduc@navarra.es) posta elektronikora bidaliz edo 848426598 eta 848426554 telefonoetara deituz.

2. **Epeak**. Datuak maiatzaren 21etik 25erako astean sartuko dira.

3. Ezinbestekoa da ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Daturik sartzan ez bada edo akatsak egiten badira, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu eta ikastetxeak berak eskuz zuzendu edo osatu beharko ditu txosten horiek, horretarako Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri duten dokumentazioarekin.

4. Salbuetsita dauden ikasleak aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira, "salbuetsita" zutabearen dagokien laukitxoan markatuta. Salbuetsita dauden ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko txostenean edo ikastetxeko estatistikoaren kalkuluan.
5. Ikastetxeko zuzendariak adierazitako faseak eta epeak betetzen direla begiratuko du. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

N. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak lortzea

1. Ekainaren 4tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez.
2. Ikaslearen txostena.

Ondoko informazioa du:

- * Gaitasun mailen definizio generikoa.
- * Ebaluatoriko gaitasun bakoitzean lortutako maila.
- * Puntuazio zuzena eta batez besteko 500 eskalara ekarritako puntuazioa eta 100 desbideratze tipikoa, gaitasun bakoitzerako, eta haren irudikapen grafikoa. Puntuazioak eskala komun batera ekartzeak aukera ematen du proben errendimendua alderatzeko.
- * Oharretarako gunea, tutoreak bete dezakeena. Txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartu ahal izatea erraztea. Atal batek oharrak izena du; tutoreak berau erabil dezake mezuren bat idatzi nahi badu.

Familiek seme-alaben emaitzak ezagutzeko eskubidea dute. Eskubide hori betetze aldera, txosten honek ikastetxeei tresna bat eskaintzen die, tutoretza lanaren testuinguruan. Ekainerako prest egonen da, familiei emateko.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du taldeko txosten guztiak artxibatze eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeek, Educa aplikazio informatikoaren bidez, bertako ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** eskuratuko dute, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta. Txostenak ondoko informazioa du:

- * Sarrera, haren irakurketa errazteko eta emaitzen barne azterketa egiteko.
- * Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzaren arabera.
- * Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- * Maiztasun grafikoa, puntuazio bakoitzerako.
- * Erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzerako, grafikoarekin.
- * Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.
- * Emaitzak alderatzen dituzten grafikoa, gaitasunez gaitasun, baita eskala komun batera ekarritako puntuazioekin ere.
- * Gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzena duten grafikoa, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Ikastetxeek zuzenean eskuratuko dituzte beren txostenak eta haiek arduratuko dira paperean inprimatzen eta formatu elektronikoa gordetzen.

Txosten honetako informazioa, behar bezala hausnartu ondoren eta ikastetxearen testuinguruari behar bezala egokituta, Eskola Kontseiluari aurkez dakiok, barne azterketaren ondoriozko hobekuntza lerroekin batera.

O. Ikasleek egindako probak gordetzea

Ikasleen koadernoak ikastetxean geldituko dira 2012ko azaroaren 30a arte, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku utziko dira, zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatzeko azterlanak egin behar badira, edo jakiteko zuzenketa irizpideak modu zuzen eta homogeneoan jarraitu ote diren.

P. Esker ematea

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendari, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

1. ERANSKINA

2011-12 ikasturteko Ebaluazio diagnostiko zentsala

DBHko 2.a

SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

Salbuetsitako erregistroa		
Taldea	Izena eta abizenak	Arrazoa (A, B, C)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

- A. Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (ikasturte bat edo gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ez ezagutzea.
- B. Mugitzeko edo zentzumenezko ezgaitasuna, proba egitea galarazten duena.
- C. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) erroldaturiko urritasun psikiko edo intelektuala, irakasgai guztietan ziklo bateko edo bi kurtso baino gehiagoko curriculum desfasea eta/edo proba egiteko autonomia gabezia.

Oharrak:

- Curriculum Egokituko Programa bat egiten ari diren ikasleak erregistratuko dira *CEP* oharrarekin.
- Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

2. ERANSKINA

Jarduera garrantzitsuenen egutegia

	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Al.				
As.			1	
Az.			2	
Og.	1		3	
Or.	2		4	1
Lr.	3		5	2
Ig.	4	1	6	3
Al.	5	2	7	4
As.	6	3	8	5
Az.	7	4	9	6
Og.	8	5	10	7
Or.	9	6	11	8
Lr.	10	7	12	9
Ig.	11	8	13	10
Al.	12	9	14	11
As.	13	10	15	12
Az.	14	11	16	13
Og.	15	12	17	14
Or.	16	13	18	15
Lr.	17	14	19	16
Ig.	18	15	20	17
Al.	19	16	21	18
As.	20	17	22	19
Az.	21	18	23	20
Og.	22	19	24	21
Or.	23	20	25	22
Lr.	24	21	26	23
Ig.	25	22	27	24
Al.	26	23	28	25
As.	27	24	29	26
Az.	28	25	30	27
Og.	29	26	31	28
Or.	30	27		29
Lr.	31	28		30
Ig.		29		
Al.		30		

Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala aplikatzea				
Ingeleseko CDa egiaztatzea				
Probak aplikatzea				
Ikaslearen eta ikaste-txearen txostenak eskuratzea				
Probak zuzentzea				
Salbuespenen erregistroa				
Probak biltzea				
Datuak Educan erregistratzea				